

# zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

Z. 169 / Udazkena URRIA 2018  
www.zizurkil.eus / 943 691012  
ErnioBidea 9A, behea  
20159 ZIZURKIL

## XXI. Zizurkilgo Azoka Berezia

URRIAK 14  
IGANDEA



LG-SS-197-2003

## ZIZURKILGO XXI. AZOKA BEREZIA

Feria especial

**10:30-14:30/16:30-19:00:**

Baserriko produktuak eta artisauak.  
Autobusa doan Bulandegi Bideko errotondan edo  
Zubiaurretxotik Zizurkil Goiko Plazara egun  
guztian zehar

(Ordutegia: 10:15-15:00 eta 16:30-20:30)

**10:30:** Azokaren irekiera.

**11:30:** Haurrentzat liho eta buztin tailerrak  
eta txikientzat puzgarriak.

**14:30:** Bazkari herrikoia Zimiterioan.

Txartelak salgai Iriarte eta Egarrri tabernetan.  
Prezioa: 15 euro.

**16:30:** Haurrentzat tailerrak,  
poniak azokan zehar eta puzgarriak.

**18:30:** GIPUZKOAKO  
HARRI HANDIEN TXAPELKETA.



## KULTURA

**10** EMAKUMEAK ONDAREA  
ALETZEN.

Iriarte Kultur Etxean 19:00etan.

Emakumeek nekazaritzako hazien  
hautaketan, ondarearen sorkuntzan  
eta haren transmisioan egindako  
lanaz arituko gara, Plazida Otaño eta  
Mikaela Elizegi ardatz harturik,  
musika eta bertsoz lagunduta.



**13** PLAZIDA OTAÑO OROITUZ. EMAKUMEEN ISILPEKO EMARIA  
ikuskizuna Ondarearen Europako Jardunaldien barruan.  
18:30ean Zizurkilgo Zimiterioan.

Haatik dantza konpainiaren **LAU EME** koreografia, Plazida Otañoen bertso  
antzeztuak eta emanaldia borobilduko duten **AMAIA AGIRREK** botatako  
bertso musikatua.



# ZATOZI! GAZTEZULO

VEN A GAZTEZULO!

IRAILA

astelehena    asteartea    osteguna    ostirala    larunbata

05	06
BOOKTRAILER IKASTAROA	GURE BOLARA
08	09
SLIME TAILERRA	
11	12
SLIME TAILERRA	BOOKTRAILER IKASTAROA
13	13
	GURE BOLARA
15	16
ITXITA	PATCHWORK TAILERRA
18	19
JOLAS LIBREA	EUSKARALDIRAKO PRESTAKETAK
20	20
	EUSKARALDIRAKO PRESTAKETAK
22	23
ITXITA	PATCHWORK TAILERRA
25	26
GAZTAINAK ERRE	GAZTAINAK ERRE
27	27
	GURE BOLARA
29	
EUSKARALDIRAKO PRESTAKETAK	

- Astelehen eta ostegunetan 17:00etatik 20:00etara 9-12 urte bitartekoentzat.
- Ostiraletan 17:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 16:30etik 19:30era 13-17 urte bitartekoentzat.

# EUSKARA

## DIRULAGUNTZAK / AYUDAS

• **EUSKARA IKASTEKO:** aurten ere Zizurkilgo Udalak **herrian bertan** euskara ikasi nahi dutenei lagunduko die.

• **AUTOIKASKUNTZARAKO:** Euskara ikasi zure erritmoan, ahal duzunean, loturarik gabe eta etxetik bertatik! Tutore baten gidaritzapean eta mintzapraktikak eginez. **Ezin da errazago jarri!**

Baldintzak: Zizurkilen erroldatua egotea eta %85eko asistentzia ziurtatzea. Matrikularen %75 (gehienez ere, pertsonako 400 €) jasotzeko aukera izango da (Autoikaskuntzaren kasuan, asistentziaren %85 mintzapraktiken araberakoa izango da).

**MINTZALAGUNA:** Euskaraz hobeto moldatzeko behar dituzunak: astean behin ordubete, ingurune lasai eta giro atsegina, jende berria ezagutzeko gogoia, hiru pertsonako taldeak (bi euskaldun berri eta zahar bat). **Guk lagunduko dizugu!** Urrian zehar izena eman dezakezu.

Informazio gehiago Ernio Bidea 9A, beheko udal bulegoetan eta 943 69 10 12 telefono zenbakian.



**BAI!**  
**HITZEGIN**  
**EUSKARA!**  
**BAI! BAI!**  
**MINTZATU**

### TEODORO HERNANDORENA XVI. IPUIN LEHIAKETA:

Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek parte hartu ahal izango dute, hiru maila ezberdinetan: A Maila: 6-8 urte; B Maila: 9-11 urte; eta E Maila: 17 urtetik gora. Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu beharko dira, **azaroaren 20ko** eguerdiko 14:00ak baino lehen Zizurkilgo Udal Bulegoetan. Oinarriak ere eskuragarri daude bertan.



### II. BOOKTRAILER LEHIAKETA:

**Bi modalitate:** Norbanakoena eta taldekakoa (hiruko taldeak).

Taldeak arloan, Epaimahaiak bi multzotan banatuko ditu lanak: DBH1-2 multzoko lanak eta DBH3-4 multzokoak. Hortaz, bi sari nagusi banatuko dira multzo bakoitzeko

Norbanakoen modalitatean ez da bereiztuko adinik baina saritzerakoan kontuan hartuko da adina eta lanaren kalitatea.



**EMAKUMEA PILOTARI** (pala eta teniseko pilotarekin): Zizurkilgo Intxaur Frontoian **asteartero 19:15etik 20:45era.** 18 urtetik gorako emakumeentzat.



### ERAKUSKETA ETA ARTISTA TAILERRA:

**1-21: SAGRARIO JAUREGIBERRIK PATCHWORK** erakusketa.

**20: ARTISTA TAILERRA SAGRARIO JAUREGIBERRIREKIN.** Izen emateak urriaren 15a baino lehenago Udal Bulegoetan. Adin guztietako pertsoneri irekia. 12 urtez beherakoek heldu batekin etorri beharko dute.



**24: PAPIROFLEXIA TAILERRA DANIEL DORRONSOROREKIN.** MASKOTAK EGITEN IKASI. 17:30-20:00 Plazida Otaño liburutegian. Familientzat.



### BESTELAKOAK:

**6** 22.GARAGARDO GAUA Herri gunean.



# EUSKARALDIA 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

## ZER DA?

Hizkuntza ohiturak astindu eta ohiko harremanetan euskara gehiago erabiltzeko ariketa. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra, Euskal Herri guztiak batera, 11 egunez euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egitea da asmoa. Horretarako, Euskaldian izena eman eta hiru txapa hauetako bat eskuratu beharko da:

- **AHOBIZI:** Ulertzen duenari euskaraz egingo diot, hark euskaraz nahiz erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz, egingo diet.

- **BELARRIPREST:** Egidazu euskaraz nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut.

- **BIHOTZBERO:** Ez dut ez hitz egiten ezta ulertzen ere, baina euskara maite dut eta besteek euskara erabil dezaten gustuko dut.

## AUKERATU ZUREA!!!

**IZEN EMATEAK IREKITA!!!**  
Udal bulegoetan, Liburutegian eta aldiro jarriko diren mahaietan.  
**ANIMATU ETA AUKERATU ZURE TXAPA!**

